



## MERKATARITZAREN MAHAIA

2022ko uztailak 18

### GAI-ZERREDA:

- ✓ Ongi etorria.
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa
- ✓ Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa
- ✓ Informazioa hurrengo gaiei buruz:
  - Getxo Bono 2023 proposamenak
  - Gabonetako kanpaina 2022
  - Stocken merkatua 2022-2023
  - GetxoModa 2022
  - GetxoAktibaTU! 2022
  - Elikadura jasangarriaren aldeko merkataritza-sarea
  - 2022ko kontrataziorako laguntzak
- ✓ Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida.
- ✓ Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

### BERTARATUAK: (% 80)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Algorta-Andra Mariko ordezkaria	Jokin Aresti (IÑAKI BITXITEGIA)		X	
Algorta-Andra Mariko ordezkaria	Lanpostu hutsa			
Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko ordezkaria	Kimetz Garate (ZURIKALDAI NEGURI)	X		



Romoko ordezkaria	Maite Sesumaga (MAITESKULAN AK)	X		
Areetako ordezkaria	Sara Mata (COLORES)	X		
Areetako ordezkaria	Itxaso Zelaia (JUAN MARI HARATEGIA)	X		
Algortako Dendak	Oriente Enríquez	X		
Getxo Enpresa	Manu Garay	X		
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Juan Jesús Blanco	X		
	Mirene Zabalgogezcoa	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Aitor Zorrilla	X		

## EDUKIAK:

### 1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mirene Zabalgogezcoa ekonomia sustapeneko teknikariak arloko arduradun berria aurkeztu du: Juan Jesús Blanco. Bilerara bertaratutakoei ongietorria eman ondoren, udako denboraldiaren eta sektorearen aurreikuspenen inguruko taldeko eztabaida txiki bat egin da. Ildo horretatik, bileran batutakoek honako hau adierazi dute:

### 2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa

Tejidos Lindau dendako Oriente Enriquezek, Algortako Dendak elkarteko ordezkariak, honako hau adierazi du: "Sektorearen egoera oso irregularra da. Oso jende gutxi dabil kaleetan. Noizean behin, kontsumo-gailurren bat dagoela nabaritu da, baina ez gara gai izan patroiz bat zehazteko". Ohar horri honako hau gehitu dio Colores dendako Sara Matak, Areetako ordezkariak: "Egun batean ondo zabilta lanean, eta hurrengoan, azalpen logikorik izan gabe, gaizki".

Precocinados Galeako Manu Garayk, Getxo Enpresako ordezkariak, merkatuaren egungo ziurgabetasuna azpimarratu, eta hausnarketa hau egin du: "Kontsumoa uzkurto egin da. Salmentak aurreko urteetako antzekoak dira, baina irabazi-marjina txikiagoa dute". Ohar horri, Juan Mari harategiko Itxaso Zelaiak, Areetako ordezkariak, gaineratu du hornitzaileek lehengaien prezioa igo dutela, baina dendek ez. Zurikaldaiko Kimetz Garatek, Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko ordezkariak, adierazi duenez, astelehenetik ostegunera bitarteko kontsumoa geldirik dago, baina asteburuei dagokienez harritu egiten da jasotzen ari den atzerriko turista kopuruarekin: bulgariarrak, indiarak eta abar. Balioespen horri buruz, Sonia Urdiain turismo-teknikariak hausnartu du etxebizitza turistikoaren eskaintza eta eskaria nabarmen igo direla Getxon, eta horren eraginez, ziurrenik, turistek elikagaietan gehiago



kontsumituko dute, establezimendu turistiko tradizionaletan ostatu hartzen dutenen aldean.

Romotik, bai Ainhoa Calderón, Romo Bizirik elkarteko ordezkaria, bai MaitEskulanak dendako Maite Sesumaga, Romoko ordezkaria, hasierako txandaz baliatu dira beren bazkideen aldetik TAO ezartzearen ondorioz jasotako kexak azaltzeko. Horri erantzuteko, Mirene Zabalgogeoazkoak aurreratu duenez, Getxoko biztanleen industria-ibilgailuetarako 90 txartel inguru eman dira. Laginketa bat egin ahal izatea planteatzen da, merkatarien elkarteen lankidetzarekin, Getxoko establezimenduen artean, hau da, udalerritik kanpo bizi diren eta jardueraren bat garatzeko industria-ibilgailua erabili behar duten jardueraren titularrekin.

### 3. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa

Hainbat alderdi politikok eta merkataritzako ordezkariak egindako iradokizunen ondoren, hartutako metodologia berria azaldu du Mirene Zabalgogeoazkoak, hots, egindako proiektuen aurrerapena eta prozesua adierazten duen laburpen-fitxa bilera baino lehen bidaltzekoa.

### 4. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

#### a) Getxo Bono 2023 proposamenak

Oriente Enriquezek establezimendu bakoitzari gehieneko bonu kopuru bat mugatzea proposatzen du (Ainhoa Calderón ere bat dator horrekin). Gainera, ados daude Getxo Bono kanpaina Eusko Jaurlaritza bezalako beste erakunde batzuek sustatutako beste kanpaina batzuekin bat ez etortzearekin. Mirene Zabalgogeoazkoa ekonomia sustapeneko arloko teknikariak kanpaina berrirako aukeratutako aldiak aipatu ditu: 2023ko martxoa eta urria.

Ainhoa Calderónek, Romo Bizirik elkarteko ordezkariak, zenbateko txikiagoko bonu gehiago egitea proposatu du. Mirene Zabalgogeoazkoa ekonomia sustapeneko arloko teknikariak azaldu duenez, aukera horrek gainkostua izango luke, bonu gehiago egiteak dakartzan kudeaketa-gastuak direla eta.

Bestalde, Oriente Enriquezek positiboki baloratzen du kanpainaren iraupena: 6 aste.

Era berean, Mirene Zabalgogeoazkoak hitz-tarte bat hartu eta adierazi du, 2022ko kanpainaren harira, laster txosten individualizatu bat bidaliko zaiela establezimendu parte-hartzaile guztiei, egindako trukeen eta negozio-bolumenaren datuekin.

#### b) Gabonetako kanpaina

Oriente Enriquezek Gabonetako merkatu bat egitea proposatzen du, non Getxoko establezimenduak beste eremu batzuetan ezagutzera emango lirartekeen. Mirene



Zabalgogezakoak erantzun dio orain dela edizio batzuk ere proposatu zela neurri hori, baina merkataritzako sektoreak ez zuen onartu, uste baitzuten dagoeneko salmenta-kanpaina indartsua dela establezimenduetan bertan, eta beste eremu batzuetako saltokiek parte hartuz gero, lehia sortzen zela beren negozioetarako. Bestalde, sektoreko ordezkarien iritziz, beharrezkoa da beste eremu batzuetako saltokiak ezagutzea, bezeroei negozioak gomendatzeko eta haiekin sinergiak sortzeko. Horretarako, Mirene Zabalgogezakoak adierazi du udalaren webguneak establezimenduen bilatzaile bat duela: [Establezimenduen gida \(getxo.eus\)](http://getxo.eus)

Colores dendako Sara Matak, Areta inguruko ordezkariak, esan du, alde batetik, txu-txu trenaren jarduerak beti izan duela arrakasta, eta bestetik, Gabonetako kanpainen zehar merkataritza eremuetan musika ipintzea proposatu du. Mirene Zabalgogezakoak adierazi du kontsulta bide publikoan egingo dela. Bide publikoa aipatzean, eta Gabonetako argiei dagokienez, ordezkariak udalerriko gune batzuetan argirik ez dagoela aipatu dute. Argirik ezak puntu beltzak sortzen ditu eremu jakin batzuetan. Mirene Zabalgogezakoak ordezkariari eskatu die abisua eman dezatela argitasun gutxiko guneren bat detektatzen dutenean, eskumena duen arloak azter dezan.

Ekonomia sustapeneko arloak konpromisoa hartzen du aurreko urteetan egindako ekintzen zerrenda mezu elektronikoz bidaltzeko.

### **c) Stocken merkatua.**

Mirene Zabalgogezakoak hurrengo stocken merkatuari atxikitzeko beharrezko dokumentazioa aurreratu du. Horren harira, Oriente Enriquezek edizio bakoitzean krokisik ez bidaltzeko eskatu du, baizik eta aurreko edizioetan aurkeztutakoa gordetzeko. Mirene Zabalgogezakoak aintzat hartu du eskaera, eta adierazi du kontuan hartuko dela hurrengo edizioetarako, eta, edonola ere, erantzukizunpeko adierazpen bat betez konpon daitekeela, merkatua aurreko edizioetako baldintza eta instalazio beretan egiteko konpromisoa hartuz.

### **d) GetxoAktibaTU!**

Mirene Zabalgogezakoak GetxoAktibaTU! programa zertan datzan azaldu du, bai eta pandemian online formatura nola bideratu zen ere. Hala ere, gaur egun, aurreko jarduerari ekin zaie berriro. Gainera, enpresak parte hartzera animatu ditu, programarako jarduerak antolatuz: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Programak - GetxoAktibaTU](#)

### **e) GetxoModa**

Mirene Zabalgogezakoak adierazi du urriaren bigarren hamabostaldian egingo dela, eta labur-labur azaldu du zertan datzan programa eta nork hartuko duen parte.

Oriente Enriquez ez dago kontent Getxo Enpresari eta GetxoModa proiektuari dagokienez. Getxo Enpresari ere jakinarazi dio hori. Esan du desoreka egon dela eta ez dela kontuan hartu ekonomia sustapeneko arloak deitutako kontraste-bileran alde aurretik hitz egindako ezer. Mirene Zabalgogezakoak azpimarratu duenez, Getxo Enpresa da ekitaldia antolatzeko laguntzaren onuraduna, eta aurtengo



edizioaren muina GetxoModaren proiektua hiriri zabaltzea da. Alderdi hori dagoeneko jasota dago proiektuan (kaleko jarduera).

Bestalde, Oriente Enriquezek erreklamatu du ez zaiela lokal guztiei bidali informazio-gutuna. Horri dagokionez, Itxaso Zelaiak, Areetako ordezkari eta Getxo Enpresako bazkideak, adierazi du establezimenduen partetik ez dutela inongo kexarik jaso gutuna ez jasotzearen harira. Hurrengo edizioari begira, Mirene Zabalgogezcoak konpromisoa hartu du ekitaldiaren berri establezimendu guztiei emateko.

Gainera, Algortako Dendak eta Romo Bizirik elkarteetako ordezkariak haserre agertu dira; izan ere, lehiaketan parte hartzeko, elkarte horietara atxikitako establezimenduei kuota bikoitza ordaintzeko eskatzen zaie, Getxo Enpresakoek duten abantailaren aldean.

## **f) Elikadura jasangarria.**

Mirene Zabalgogezcoak garrantzitsutzat jo du programaren lehen saioetan egindako baterako sorkuntza-lana, eta talde eragileak identifikatu dituen bi erronkak aipatu ditu:

- Etxez etxeko banaketa-eredua
- Kontzientziazioa eta prestakuntza

Bi erronketako lehenengoari aurre egiteko, Getxo Enpresak etxez etxeko bidalketarekin eta beste esperientzia batzuekin egin duen pilotajea izatea aurreikusten da. Bestalde, Itxaso Zelaiak, Areetako ordezkariak, aditzera eman du Bartzelonan paketeak uzteko gune bat dutela merkatuan. Ekonomia sustapeneko arloak azaldu duenez, Algortako merkatua ez dago beti irekita, gaur egun ez dago lekurik eremu publiko batean kokatzeko, eta jasotzeko-gune gisa hutsik dagoen lokal bat gaitzeko aukera baztertu egin zen kostu handiagatik.

## **g) Kontrataziorako laguntzak**

Jakinarazi da aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean langileak kontratatu dituzten establezimendu guztiek aukera izango dutela, gainerako baldintzak betetzen badituzte, laster argitaratuko diren kontrataziorako laguntzak eskatzeko. [Getxo - Ekonomia Sustapena - Dirulaguntzak - Hurrengo dirulaguntzak kontrataziorako 2022](#)

## **5. Ideia eta proposamen berriak.**

Getxo Enpresako ordezkari Manu Garayk eskatu du TAO txartela eduki ahal izatea Getxotik kanpo bizi diren baina udalerrian merkataritza-lokal bat duten pertsonentzat. Laginketa bat egin ahal izatea planteatzen da, merkatarien elkarte lankidetzarekin, Getxoko establezimenduen artean, hau da, udalerritik kanpo bizi diren eta jardueraren bat garatzeko industria-ibilgailua erabili behar duten jardueraren titularrekin.



Manu Garayk berak dinamizaziorako laguntzen 2. lerroari buruz galdetu du, eta Getxo Enpresak hori lortzeko aukerarik izango lukeen. Sonia Urdiain turismo- enpresa eta -jardueretako teknikariak jakinarazi duenez, lerro horren helburua garapen ekonomikoaren estrategian lehentasunezko zat jotako sektoreak garatzen, profesionalizatzen eta dinamizatzen lagunduko duten jarduerak, jardunaldiak edo proiektuak egitea da: kirol- eta ongizate-industriak eta kultura- eta sormen- industriak; horregatik, laguntzaren onuradunak elkarte profesionalak dira.

Itxaso Zelaiak, Areeta inguruko ordezkariak, kontsulta egin du Lonjak Piztu egitasmoak emandako laguntzei buruz. Mirene Zabalgogezakoak azaldu duenez, lehen aldi honetan hiru dirulaguntza eman zaizkie hiru negoziari.

Bilera amaitutzat eman da, eta ordezkariari eskatu zaie beste ekarpen eta proiektu- proposamen batzuk aurkez ditzatela irailaren 8ra baino lehen, 2023ko aurrekontuetan kontuan har daitezten.

## 6. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa deitzea irailaren 13an. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

### MERKATARITZAREN MAHAIAREN ERABAKIAK (2022/07/18):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Informazioa eskatzea Getxotik kanpo bizi diren baina negozioa udalerrian duten eta ibilgailua jarduerarako erabiltzen duten titularrei buruz.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Getxo Bono 2022ko lehen aldiko txosten indibidualak bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Getxo Bono 2023rako hobekuntza- proposamenak bidaltzea	Turismo sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte
5. Bide publikoan kontsulta egitea Gabonetako kanpainarako girotze musikolari buruz	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
6. Beste urte batzuetan Gabonetako kanpainan egindako jarduerak e-mail bidez bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
7. Gabonetako kanpainarako proposamenak bidaltzea	Turismo sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte
8. Merkataritza-ardatzean 20:00etatik aurrerako delinkuentziari buruzko datuak kontsultatzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera



9. Sektorearen egoera edo/eta kokapena hobetu dezaketen proposamenak igortzea 2023an egikaritzeko	Turismo sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte
10. Hutsik dauden ordezkarien plazak ezagutaraztea, eta horiek betetzeko hautagaiak aurkeztea	Sektoreko ordezkariak	Irailaren 8ra arte
11. 2023ko stocken merkaturako datak proposatzea	Turismo sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte